

I. ERANSKINA

PORTAERA ETA GARBIKETA PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Toki Araubidearen oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Gobernu Modernizatzeko neurrien abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatutakoak eman dizkidan eskumenak erabiliz, Udal honek Basauriko udal mugartean gizarte-portaera ordenatzea eta herriko higiena ordenatu eta zaintzea helburu duen Ordenantza hau onartu du. Herriko higienetzat hartuko da Ordenantzaren lurralde-eremuko arazo azterketa, prebentzio eta konponbideari buruzko zerbitzu guztiak, betiere gai hauei badagozkie:

- Portaera eta herri bideetako garbiketa, honakoei dagokion guztian: herritarren erabilera komun orokorra, askotariko obra eta jardueren ondorioz herri-bidean sorturiko zikinkeria, jabetza pribatuko urbanizazio eta orubeen garbiketa eta mantentze-lanak eta zaborren eta hiri-hondakin solidoen bilketa.
- Zehapen-araubidea, osasungarritasuneko, txukuntasuneko eta herritarren ongizateko egoera egokiak lortzeko, ingurumena eta Basauriko herritarren bizi-kalitatea behar bezala babeste aldera.

2. artikulua.- Ordenantza honen aginduak kasu guztietan Basauriko udal mugartean aplikatuko dira.

Ordenantza honen ondoretarako, zabortzat eta hiri hondakin solidotzat hartuko dira etxeetako, merkataritza edo zerbitzuetako, sanitateko, hiri-garbiketako, industriako nahiz obretako jarduera edo egoerek sortzen dituztenak, bai eta altzariak, tamaina handiko tresnak edo ibilgailuak. Orokorrean, hondakintzat hartuko dira Udalek bildu, garraiatu eta biltegitatu behar dituzten guztiak, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legean, Hondakinei buruzko Legean nahiz indarrean dauden eta bat datozen xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Artikulua.- Ordenantza honen arauak analogiaren bidez aplikatuko dira bertan beren-beregi araututa ez dauden kasuetan, beren ezaugarriak direla-eta ordenantzen aplikazio-eremuan sartu ahal badira.

4. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritakoa bete beharrak ez dio kalterik egingo herri-garbiketako zerbitzuaren adjudikaziodun enpresaren betebeharrei, uneoro indarrean dagoen kontratuarekin bat etorritik, ezta uneoro Udalak ematen dituen jarraibideei.

5. artikulua. - 1.- Hiriaren garbitasunari dagokionez, pertsona fisikoek nahiz juridikoek zikinkeria saihestu eta prebenituko duen jokabidea izateko betebeharra dute; halaber, Ordenantza hau nahiz Alkatetzak bere eskumenak gauzatuz ematen dituen xedapen osagarriak unean-unean betetzeko betebeharra dute.

2.- Pertsona fisiko eta juridikoek euren askatasuna inguruko pertsonen eskubide eta askatasunei jaramon eginez gauzatu behar dute, hirugarren pertsoneri edo euren ondasunei kalterik egin gabe.

3.- Debekatuta dago Udallerri honetako Saltokietan, kioskoetan eta bestelako establezimenduetan lehergaiak, gai piroteknikoak, suziriak eta petardoak saltzea, Gobernuaren Ordezkaritzaren baimenik gabe.

4.- Debekatuta dago suziriak, petardoak edo bestelako gai piroteknikoak jaurtitzea, udalaren baimenik gabe.

5.- Kaleko salmentari dagokionez, ondore horretarako Basaurin saltoki iraunkorretik kanpoko salmenta arautzeko dagoen Ordenantzari jaramon egingo zaio.

6. artikulua. - 1. Herritarren eskubideak honako hauek dira:

- Ordenantza honen xede den herri-garbitaketako zerbitzua eskatzea.
- Eskaria eginda, zerbitzuari dagokion guztiaren berri jasotzea, eta zerbitzuak eragiten dituen eskariak, erreklamazioak eta iradokizunak Udalari aurkeztea, bai zerbitzua kudeatzen duen enpresaren bidez, bai zuzenean.
- Antzematen dituzten akats eta arau-hausteak salatzea; era beran, horiek zuzentzeko egintzen berri jaso behar dute herritarrek.

2.- Herritarren betebeharrak honako hauek dira:

- Herriko higieneari kalte egiten dion guztia eragotzi eta prebenitzea.
- Udal Organoek eman duten Ordenantza honetan eta horren arau osagarrietan aurreikusitako aginduak betetzea.
- Zerbitzua jasotzeagatik Zerga-ordenantzetan aurreikusitako tasa eta ordainarazpenak ordaintzea.
- Udalak berak bere izenean ordezeko eran egin behar dituen betearazpenen ondorioz sortutako gastuak abonatzea.
- Ordenantza hausteagatik ezartzen diren isunak ordaintzea.

7. artikulua. -1.- Herri bidean eta elkarbizitza publikoko guneetan edo eraikinen barruan egiten den zarata, herritarren arteko elkarbizitzak eskatzen dituen muga barruan mantendu beharko da.

2.- Giza ahotsaren tonu altuegiak, pertsonen jarduerak berak, etxeke animaliek, musika gailu edo tresnek egindako zaratak, edo auzokoei zaratak direla-eta eragozpenak eragiten dizkieten jarduera edo jokaera

pertsonalak, gizabidezko jokaera arrunt baten bitartez ekidin daitezke, eta horiei dagokie aurreko paragrafoan ezarritako agindua, bereziki zarata gaueko atsedean orduetan egiten bada.

3.- Udaltzaingoak jokaera aldatzeko eskatuko die gizabidezko jokaerarik agertzen ez duten herritarrei. Udaltzaingoko agenteen aginduei jaramon egiten ez bazaie, haiek jokaera horien aurkako salaketa jarri ahal izango dute, bai eta zehapen-espeditente egokiak sorrarazi.

8. artikulua. -1.- Orokorrean debekatuta dago soinu-dispositiboak erabiltzea propaganda, dei, abisu edo dibertimendurako asmoekin.

2.- Herritarrentzat tradiziozkoak diren garrantzi handiko ekitaldiak daudenean, ofizialak, kulturalak, sozialak, politikoak, kirol edo jolasen arlokoak, aurreko debeketik kanpo geratuko dira horietan sortutako zaratak.

9. artikulua. - Udal agintariak honako ordenantza hau betetzea eskatuko dute, eta kaltea egin duen pertsona eragindako eragozpena konpontzera behartuko, dagokion zehapenaren kalterik gabe. Alkatetzak diruzko zehapenak ezarri ahal izango ditu Ordenantza hau hausten duten ekintza edo jokaerengatik.

10. artikulua. 1.- Udalak ordezkotako eran egin ahal izango ditu Ordenantza honen arabera pertsona fisikoei zuzenean dagozkien garbiketaren lanak. Emandako zerbitzuen kostua pertsona horien konturakoa izango da, zerga araudiarekin bat etorriz, eta kasuan kasu egokiak izan daitezkeen zehapenen kalterik gabe.

2.- Aurreko paragrafoko baldintza berberetan, Udalak ordezkotako eran egin ahal izango ditu higiezinaren kanpoko elementu eta atalen mantentze, konpontze eta garbitzearen lanak, bai eta bertan utzitako hondakinak zama, bertatik kendu, eta garraiatu. Gauza bera egingo du Ordenantza hau hausten duten ekintza guztiei dagokienez.

II. TITULUA GARBIKETA PUBLIKOA

I. KAPITULUA. -HERRITARREN ERABILERA KOMUNAREN ONDORIOZKO GARBIKETA PUBLIKOA-

11. artikulua. Garbiketaren ondoretarako, herri-bidetzat hartuko dira herritarrek orokorrean erabiltzeko udal jabetzako ondasun guztiak (udalak artatu behar dituen bideak, plazak, kaleak, pasealekuak, iturriak, parkeak, urtegiak, espaloiak eta antzekoak); beraz, horiek garbitzea udalaren ardura izango da.

12. artikulua. -1.- Ondasun partikularrak badira, horiek garbitzea jabeei dagokie. Jabekidetzeta edo ondasun-erkidegoetan, jabe edo erkide diren pertsonena izango da ardura, eta Udalak eurengana guztiengana edo horietako batzuenagana jo ahal izango du.

2. Bide eta urbanizazio pribatuak, pasabideak, barruko patioak, orubeak eta jabetzako partikularreko lursailak eta berdegune pribatu eta antzekoak zikin egonez gero, jabeek garbitu behar izango dituzte. Ondore horietarako, Udalak kontrolatu, ikuskatu eta zainduko du elementu horien garbitasuna, eta elementuok garbitzera behartu izango du horien ardura duen pertsona, horretarako ematen diren jarraibideekin bat etorritik.

3. Jabegoak betebehar hori behar bezala betetzen ez duenean, garbiketa egingo du dagokion udal zerbitzuak, eta jabego horrek ordaindu beharko du emandako zerbitzuen zenbatekoa, Ordenantza honen 3.3 art.arekin bat etorritik, eta ezar daitezkeen zehapenak edozein direla ere.

13. artikulua. - Udalak kontrolatu eta ikuskatuko du elementu horien garbitasuna, eta elementuok garbitzera behartu izango du horien ardura duen pertsona, horretarako ematen diren jarraibideekin bat etorritik.

14. artikulua. Udallerriaren garbiketaren ondoretarako, ekitaldi publikoen antolatzaile pribatuak, ekitaldi horiek jabego publikoko esparruetan antolatzen dituztenean, ekitaldi horren ondoriozko zikinkerriaren nahiz garbiketaren ardura izango dute.

2.- Halaber, ekitaldi publiko baten ondorioz herri-bidea edo bertako altzariak hondatzen badira, horren erantzukizuna izango dute ekitaldiaren antolatzaileek, eta haiek ordaindu beharko dituzte altzariak aldatzeko gastuak, ezar daitezkeen zehapenen kalterik gabe.

15. artikulua. - Debekatuta dago herri-bidean ekintza hauek egitea:

1. Hiri-hondakin solidoen ezaugarriak ez dituzten hondakin solidoak edo likidoak herri bidean uztea.
2. Tamaina txikiko hondakin solidoak (adibidez: paperak, zigarrokinak, bilgarriak, fruta-azalak, etab.) herri-bidean botatzea. Horiek ondore horretarako instalatutako paperontzietan bota beharko dira.
3. Zigarroak, zigarrokinak edo bestelako materiak piztuta botatzea paperontzietara edo gaikako bilketarako edukiontzietara.
4. Ibilgailuetatik herri-bidera edonolako hondakinak botatzea, ibilgailua abian nahiz geldirik egon.
5. Balkoietan jarritako landare eta lore-ontziak goizeko zortzietatik gaueko hamarretara ureztatzea, horren ondorioz herri-bidea edo horren elementuak ziprztintzen badira. Ordu-tegi horretatik kanpo ureztatu ahal dira, auzokoei eta oinezkoei eragozpenik ez eragiteko kontua izanez gero.

6. Balkoietatik arropa, alfonbrak edo objektuak astindu ahal dira soilik 8etatik 10etara, betiere auzokoei eta oinezkoei eragozpenik ez eragiteko kontua izanez gero.
7. Herri-bidean txistua botatzea edo premia fisiologikoak asetzea.
8. Eraikin, etxebizitza edo establezimenduetako balkoi, terraza edo leihoetatik herri-bidera hiri-hondakin solidoak botatzea, baita poltsetan edo ontzietan botatzen badira ere.
9. Herri-bidean nahiz bertan instalatuta dauden paperontzi edo edukiontzietan utzitako hondakin-materialak manipulatu eta aukeratzea.
10. Ur zikina edo garbiketan sortutako urak herri-bidean edo lorategietan - saneamendu-sarean izan ezik- botatzea.
11. Ibilgailuak herri-bidean ohiko eran garbitu eta konpontzea, bidea zikintzen edo kutsatzen bada; halaber, debekatuta dago hiri-higienea edo garbitasuna kaltetzen duen beste edozein eragiketa egitea.
12. Hiri-altzariak (paperontziak, jesarlekuak, farolak, edukiontziak, haur-jolasak, apaindurarako elementuak...) behar ez den bezala erabiltzea, hondatzea edo suntsitzea.
13. Lonjak, atariak nahiz merkataritzako establezimendu eta lokalak erratzez garbitu ondoren zaborra herri-bidera botatzea.
14. Iturri publiko, urtegi eta antzekoetan bainatzea.
15. Kartelak jartzea, inskripzioak, pintadak, etab. nahiz grafismoak egitea fatxadetan edo Udalak ondore horretarako adierazitakoak ez diren lekuetan.

Ez dago baimenduta herri-bideetan pintadak egitea, propaganda jartzea eta grafismoak egitea egiturazko elementuen, galtzaden, espaloien, hiri-altzarien, harresien, pareten, kioskoen, kabinen eta farolen gainean. Honakoak salbuespenak dira:

- Jabeen eta Basauriko udalaren baimenaz egiten diren mural artistikoak, pertsonen eskubideen duintasunari kalterik egiten ez badiote.
 - Udal xedapenek horri dagokionez baimentzen dituzten egoerak.
 - Udal agintariak baimentzen dituztenak.
16. Herri-bidean zikinkeria sortzen duen edozein eragiketa egitea, aldi berean auzokoei edo oinezkoei eragozpena sortu ahal badie.
 17. Suziriak eta petardoak udalaren baimenik gabe botatzea.
 18. Landareak edonola manipulatzeko.

19. Zuhaitzak eta zuhaixkak moldatu, inausi, astindu edo apurtzea.
20. Landare-espezie guztietan loreak edo adarrak moztu, errotik atera edo hondatzea, baita horien sustraiak moztu edo ateratzea ere.
21. Udalaren baimenik gabe landatzea eta gainerako lorezaintza-lanak egitea.

II. KAPITULUA. OBREN ETA HAINBAT JARDUEREN ONDORIOZ HERRI-BIDEAN SORTUTAKO ZIKINKERIA.

16. artikulua. - Herri-bidean zikinkeria sorraraz dezaketen jarduera guztietan, edozein lekutan egiten direla ere, horien titularrek behar diren neurriak hartu beharko dituzte herri-bidea ez zikintzeko, zikindu den herri-bidearen zatia garbitu beharko dute behar den aldi guztietan, eta hondakinak herri-bidetik kendu beharko dituzte. Horrek ez die kalterik egiten kasuan kasu bidezkoak diren lizentzia edo baimenei.

17. artikulua. - Obren hondakinak botatzeari dagokionez, honakoa xedatu da:

1. Debekatuta dago herri-bidean, orubeetan eta zelaietan obren edo askotariko jardueren hondakinak uztea edo isurtzea. Arduradunek hondakin horiek obretatik atera behar dituzte, eta zabortege baimenduetan utzi.
2. Zikinkeria prebenitzeko, herri-bidean eragina duten lan edo obrak egiten dituzten pertsonak herri-bidea babestu beharko dute, obretan soberan dauden eraiste-hondakinen, lurren edo bestelako materialen inguruan elementu egokiak jarritz, material horiek lanen eraginpeko aldetik kanpora hedatzea edo isurtzea saihesteko.
3. Obren materialak eta hornidura-materialak, edukiontziak eta hondakinak obren higiezinaren barruan edo behar bezala baimenduta eta mugatuta dagoen herri-bidearen aldean jarriko dira, eta erabat debekatuta dago horretarako gainontzeko herri-bidearen aldeak erabiltzea.
4. Edonola ere, hondakinak Udalak baimendutako euste-elementuetan bota beharko dira, eta horiek instalatzeari dagokionez, herri-bideetan jartzen diren edukiontzietarako ezarritako jarraibideei jaramon egin beharko zaie. Halaber, obrak amaitutakoan, obra egin duten pertsona edo erakundeek hondakinak edo soberan egon diren gauzak jaso beharko dituzte lanak amaitu edo eten eta hurrengo hiru lanegunen barruan, eta erabilitako eremua garbitu beharko dute.

III. KAPITULUA. - JABEGO PRIBATUKO URBANIZAZIOAK ETA ORUBEAK GARBITZEA ETA MANTENTZEA.-

18. artikulua. - 1.- Jabari eta erabilera pribatuko finka eta erakinen jabeek, haietan norbait bizi nahiz ez, edo bertan behera utzita badaude ere, segurtasun, osasungarritasun eta garbitasun-egoera egokietan eduki beharko dituzte leku horiek.

2.- Agindu horrek ere behartzen du etxadietako patioak higiene, osasungarritasun eta apaintasun publikoko egoeretan mantentzera, bai eta desinfektatzera eta arratoiak hiltzera.

3.- Udalak kontrolatu eta ikuskatuko du aurreko idatz-zatiko elementuen garbitasuna, eta arduradunei horiek garbitzea eskatu ahalko die.

19. artikulua. - Orubeen eta lursailen nahiz eraikinen soberakinen jabe diren pertsonak leku horiek hondarrik eta hondakinik gabe, eta osasungarritasun, higiene eta apaintura publikoko egoera egokian eduki beharko dituzte Agindu horrek barne hartzen du orubeak desinfektatzeko eta bertan arratoiak hiltzeko eskakizuna.

III. TITULUA

HONDAKINEN BILKETA

20. artikulua. - Erabiltzaileek zaborra utzi behar dute ontzi itxi eta sendoetan, kanporantz isuri ez daitezela. Debehatuta dago zaborra soltean edo zaborrontzietan uztea.

21. artikulua. - 1.- Debehatuta dago zaborrak bertan uztea eta herri-bideko zakarontzietan uztea. Erabiltzaileek zabor horiek utzi beharko dituzte ondore horietarako ezarritako ordutegietan eta gaitutako lekuetan.

2.- Zaborrak ezin dira 21.00ak baino lehenago utzi, partikularrei dagokienez, eta 20.00ak baino lehen, merkataritzako establezimenduei dagokienez. Hala ere, ordutegi hori Alkatetzak aldatu ahalko du, eta jendaurrean horren berri emango da Bando bidez.

3.- Udalak aldatu ahalko ditu zabor-bilketako zerbitzuaren maiztasunak edo ibilbideak, hori udalerriaren interesetarako onuragarritzat jotzen badu.

4.- Janarien arloko produktuen saltokiak arautzen dituen Ordenantzaren arabera zaborretarako gela eduki behar duten establezimenduek erabilera normalizatuko edukiontzia ere eduki beharko dute. Erabilera normalizatuko edukiontzia dira udal zabor-bilketako ibilgailuen bidez

altxa daitezkeenak, hondakin isuri gabe, edo Alkatetzak unean-unean zehazten dituen ezaugarriak dituzten edukiontziak.

22. artikulua. -1.- Udalak hondakin solido eta birziklagarrietarako gaikako bilketa-zerbitzuak ezarri ahalko ditu, besteak beste:

- Beiraren gaikako bilketa.
- Paper eta kartoiaren gaikako bilketa.
- Ontzien gaikako bilketa.
- Pila eta bestelakoen gaikako bilketa.

2.- Gaikako bilketarako jarritako edukiontziak zerbitzu egokia emateko soil-soilik erreserbatuta daude. Edukiontzi horietan debekatuta dago kasu bakoitzerako beren-beregi aurreikusitakoak ez diren hondakinak botatzea. Debeku horrek obren edukiontzietarako ere balio du.

3.- pertsona fisiko edo juridiko orok debekatuta du hondakin-bilketan Basauriko udalaren baimenik gabe jardutea.

23. artikulua. - Udal zerbitzuek erabakiko dute edukiontzien kopurua nahiz horiek jartzeko tokiak, kontuan hartuta partikularrek, merkatariek eta elkarteek eman ahal dituzten oharrak. Herritarrek ezin dituzte edukiontziak lekuz aldatu.

24. artikulua. - Altzariak eta gainontzeko tamaina handiko tresnak bota nahi dituzten pertsona partikularrek gaitutako leku eta egunetan utziko dituzte gauza horiek, ondore horretarako dagoen udal zerbitzuari deitu ondoren, edo Udalak zehazten duen eran. Udal zerbitzu hori ezin dute merkataritzako edo industriako establezimenduek erabili.

25. artikulua. - Debekatuta dago edonolako hondakinak zerupearan edo helburu horretarako berariazko baimena ez duten instalazioetan kontrolik gabe erraustea.

26. artikulua. -1.- Sanitateko hondakinak sortzen dituzten Zentroak hondakin horiek egokiro kudeatzeko ardura dute. Zentro bakoitza arduratuko da higieneari, osasungarritasunari eta garbiketari dagozkion gorabeheraz, eta aplikatu daitezkeen legedi eta ordenantzak beteko ditu.

2.- Hondakin toxikoak eta arriskutsuak baimena duen hirugarren batek bildu behar ditu. Debekatuta dago hondakin arriskutsuak herrí-bidean zamatzea.

IV. TITULUA ZEHATZEKO ARAUBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

27. artikulua. - Ordenantza honetan adierazitako betebeharrak ez betetzetik ondorioztaturiko erantzukizunak, exijitu egingo dira ez bakarrik norberaren ekintzengatik baita norberaren ardurapeko pertsonak egindakoengatik ere.

28. artikulua. 28. artikulua.- Administrazio Publikoen Zehapen Ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa kontuan hartuko da zigorrak graduatzerakoan.

II. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

29. artikulua.- Ordenantza honen ondoreetarako, jarraian aipatzen direnak arau-hauste oso larriak dira:

1. Edonolako hondakinak zerupearan edo helburu horretarako berariazko baimena ez duten instalazioetan kontrolik gabe erraustea.
2. Hondakin sanitario, toxiko eta industrialak behar ez bezala kudeatzea.
3. Honako ondorio hauek dakartzatenak:
 - a) Bizikidetzan nahasmendu handia sortzea eta ondorioz, beste pertsonen lasaitasunari edo bidezko eskubideak egikaritzeari, edo arautegi aplikagarriaren arabera egindako edozelako jardueren gauzatze arruntari edo osasungarritasun eta apaintasun publikoari larriki, berehala eta zuzenean eragitea, baldin eta Hiritarren Segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Legearen IV. kapituluan aurreikusitako motetan sartzen ez diren jokaerak badira.
 - b) Beste pertsona batek edo batzuek zerbitzu publiko bat erabiltzea eragozte, beroriek zerbitzu hori erabiltzeko eskubidea dutenean.
 - c) Zerbitzu publiko batek normal funtzionatzea eragozte edo normal funtzionatzeko oztopo handiak jartzea.
 - d) Beste pertsona batek edo batzuek espazio publiko bat erabiltzea eragozte, beroriek espazio hori erabiltzeko eskubidea dutenean.
 - e) Zerbitzu publiko bateko ekipamenduak, azpiegiturak, instalazioak edo elementuak larri hondatzeko ekintzak.
 - f) Espazio publikoak edo horietako edozein instalazio eta elementu, higigarriak zein higiezinak, larri hondatzeko ekintzak, herritarren segurtasunaren nahasmenduaren ondorio ez direnean.

30. artikulua. - Jarraian aipatzen direnak arau-hauste larriak dira:

1. Ur zikina edo garbiketan sortutako urak herri-bidean edo lorategietan - saneamendu-sarean izan ezik- botatzea.
2. Olioak, hidrokarburoak, petrolioaren deribatuak edo bestelako substantzia kutsagarriak herri-bidean botatzea.

3. Obra-hondakinak edo abarrak herri-bidean uztea edo botatzea.
4. Jabari pribatuko orubeak behar ez bezala garbitzea.
5. Altzariak eta tamaina handiko tresnak uztea, utzi beharreko toki eta egunetatik kanpo.
6. Pertsona fisikoek edo juridikoek hondakinak biltzea, Basauriko Udalaren baimena eskuratu barik.
7. Era berean, arau-hauste larriak izango dira arintzat jotako guztiak, honako irizpide hauen arabera:
 - a) Beste pertsonen lasaitasunean edo eskubideen egikaritze baketsuan edota jardueretan eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.
 - b) Osasungarritasun eta apaintasun publikoei eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.
 - c) Beste pertsona batzuek zerbitzu edo espazio publiko bat erabiltzeko eskubidea dutenean, erabilera horretan eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.
 - d) Zerbitzu publiko baten funtzionamendu normalean eragindako nahasmenduaren intentsitatearen arabera.
 - e) Zerbitzu edo espazio publiko bateko ekipamendu, azpiegitura, instalazio edo elementuei eragindako kalteen intentsitatearen arabera.

31. artikulua.- Ordenantza honen ondoretarako, jarraian aipatzen direnak arau-hauste arinak dira:

1. Hiri-hondakin solidoen ezaugarriak ez dituzten hondakin solidoak edo likidoak herri-bidean uztea.
2. Tamaina txikiko hondakin solidoak (adibidez: paperak, zigarrokinak, bilgarriak, fruta-azalak etab.) herri-bidean botatzea. Horiek ondore horretarako instalatutako zakarrontzietan bota beharko dira.
3. Zigarroak, zigarrokinak edo bestelako materiak piztuta botatzea zakarrontzietara edo gaikako bilketarako edukiontzietara.
4. Ibilgailuetatik herri-bidera edonolako hondakinak botatzea, ibilgailua abian edo nahiz geldirik egon.
5. Balkoietan jarritako landare eta lore-ontziak goizeko zortzietatik gaueko hamarretara ureztatzea, betiere, ureztatzearen ondorioz herri-bidera edo horko elementuetara isurketarik egiten bada edo zipriztinik eragiten. Orduetegi horretatik kanpo ureztatu ahal izango dira, auzokoei eta oinezkoei eragozpenik ez eragiteko kontua izanez gero.

6. Ibilgailuak herri-bidean ohiko eran garbitu eta konpontzea, bidea zikintzen edo kutsatzen bada; halaber, hiri-higienea edota garbitasuna kaltetzen duen beste edozein eragiketa egitea.
7. Etxeetako balkoi, leiho eta beheko solairuetatik arropak, alfonbrak edo objektuak astintzea, jarritako ordutegitik aparte.
8. Herri-bidean txistua botatzea edo premia fisiologikoak asetzea.
9. Eraikin, etxebizitza edo establezimenduetako balkoi, terraza edo leihoetatik herri-bidera hiri-hondakin solidoak botatzea, baita poltsetan edo ontzietan botatzen badira ere.
10. Herri-bidean nahiz bertan instalatuta dauden zakarrontzi eta edukiontzietan utzitako hondakin-materialak manipulatu eta aukeratzea.
11. Lonjak, atariak, nahiz merkataritzako establezimendu eta lokalak erratzez garbitu ondoren zaborra herri-bidera botatzea.
12. Hondakinak behar ez bezala uztea edukiontzietan.
13. Higiezinaren kanpoaldeak behar ez bezala garbitzea.
14. Ekitaldi publikoen ondoren, herri-bidea behar ez bezala garbitzea.
15. Iturri publiko, urtegi edo antzekoetan bainatzea.
16. Zaborrak horretarako jarritako ordutegitik edo lekutik kanpo uztea, baita zaborrak ontzi egokietan ez botatzea ere herri-bidea zikindu dezaketenean.
17. Kartelak jartzea, inskripzioak, pintadak, etab. nahiz grafismoak egitea eta propaganda ipintzea fatxadetan edo Udalak ondore horretarako adierazitakoak ez diren lekuetan, baita herri-bideetan pintadak egitea eta propaganda jartzea ere egiturazko elementuen, galtzaden, espaloien, hiri-altzarien, harresien, pareten, kioskoen, kabinen eta farolen gainean.
18. Udallerri honetako saltokietan, kioskoetan eta bestelako establezimenduetan lehergaiak, gai piroteknikoak, suziriak eta petardoak saltzea, Gobernuaren Ordezkaritzaren baimenik gabe.
19. Suziriak, petardoak eta gai pirotekniko txikiak udalaren baimenik gabe botatzea.
20. Herri-bidean, elkarbizitza publikoko guneetan edo eraikinen barruan zarata egitea, honako Ordenantza honen Xedapen Iragankorrean ezarri diren mugetatik kanpo edo Udaltzaingoa agindutakoari kasurik ez egitea.
21. Soinu-dispositiboak erabiltzea propaganda, dei, abisu edo dibertimendurako asmoekin.

22. Landareak edonola manipulatzeari.
23. Zuhaitzak eta zuhaixkak moldatu, inausi, astindu edo apurtzea.
24. Landare-espezie guztietan loreak edo adarrak moztu, errotik atera edo hondatzea, baita horien sustriak moztu edo ateratzea ere.
25. Udalaren baimenik gabe landatzea eta gainerako lorezaintza-lanak egitea.
26. Herri-bidean zikinkeria sortzen duen edozein eragiketa egitea, aldi berean auzokoei edo oinezkoiei eragozpena sortu ahal badie.
27. Gainerakoen edo horien ondasunen eskubideak eta askatasuna kaltetzen dituen beste edozer egitea, bestelako arau-hausteetan berariaz zehatuta ez dagoenean.

III. KAPITULUA. ZEHAPENEN SAILKAPENA

32. artikulua.- Zehapen Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa kontuan hartuko da zehapenak graduatzerakoan.

33. artikulua.- Aurretik aipatutako arau-hausteak egiten badira, jarraian agertzen diren zehapenak ezarriko dira:

- Arau-hauste arinak: 750 euroraino
- Arau-hauste larriak: 1.500 euroraino
- Arau-hauste oso larriak: 3.000 euroraino

V. KAPITULUA.- PRESKRIPZIOA

34. artikulua. 1.- Arau-hauste oso larriak hiru urte igarotakoan preskribatuko dira, arau-hauste larriak bi igarotakoan eta arau-hauste arinak, berriz, sei hil igarotakoan.

2.- Hutsegite oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urte igarotakoan preskribatuko dira, hutsegite larriengatik jarritakoak bi urte igarotakoan eta hutsegite arinengatik jarritakoak, berriz, urtebete igarotakoan.

3.- Arau-hausteen preskripzio-epea egiten diren egunetik hasita zenbatuko da.

4.- Zehapenen preskripzio-epea zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtu eta biharamunetik aurrera zenbatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Udal honek Zaratei buruzko Udaltzaren Ordenantza onetsi artean, honako muga orokor hau ezarri da bestelako xedapenen bidez bereziki araututa ez

dagoen hiriko edozein jardueratarako: 8:00etatik 22:00etara 60 dB(A) eta 22:00etatik 8:00etara 40dB(A), eraikinen kanpoaldean.

Nolanahi ere, ezin izango dira gainditu 40 dB(A) 8:00etatik 22:00etara bitartean eta 30 dB(A) 22:00etatik 8:00etara bitartean minutu batean Leq baliokidean etengabe, ezta 45 eta 35 dB(A) gehienezko balioetan herritarren etxeetan ere, goizeko 8:00etatik eta gaueko 22:00etatik hasita hurrenez hurren, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan bereziki araututako jarduerari aplikatu ahal zaizkien berariazko araudiak erabaki dezakeenaren kaltetan gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

LEHENENGOA.- Hiriko eta baserri-inguruetakoko garbitasunari buruzko Udal Ordenantza, 1925ekoa, indargabetu da.

BIGARRENA.- Ordenantza honetan aipatutako gaiak arautzen dituzten eta hemen ezarritakoaren aurka dauden lerrun bereko edo beheragoko lerruneko xedapen guztiak indargabetu dira.

AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera egongo da indarrean.